



576/2022 EBAZPENA, apirilaren 25ekoa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko Zuzendari Gerentearena, zeinaren bidez Barrualde-Galdakaoko ESiko Oftalmologiako Atal Sanitarioko burua –pertsonekiko zerbitzuaren jardueraren kudeaketa eta koordinazio arlokoa– hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren

AURREKARIAK

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari gerentearen urtarrilaren 25eko 89/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Barrualde-Galdakaoko ESiko Oftalmologiako Atal Sanitarioko Burua –pertsonekiko zerbitzuaren jardueraren kudeaketa eta koordinazio arlokoa– izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko martxoaren 7ko EHAA 47. zk. eta 2022ko martxoaren 14ko BOE 62. zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun baliouduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko apirilaren 4an amaitu zen.

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari gerentearen apirilaren 5eko 503/2022 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetza Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Oftalmologiako Atal Sanitarioko Burua –pertsonekiko zerbitzuaren jardueraren kudeaketa eta koordinazio arlokoa– izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)



Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Galdakaon, 2022ko apirilaren 25ean.



Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari gerentea,
Jon Guajardo Remacha



I. ERANSKINA

**BARRUALDE-GALDAKAOKO ESiko OFTALMOLOGIAKO ATAL SANITARIOKO
BURUA –PERTSONEKIKO ZERBITZUAREN JARDUERAREN KUDEAKETA ETA
KOORDINAZIO ARLOKOA– IZENEKO LANPOSTUA**

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Ioana ROMERO MORENO

Baztertuak:

- Inor ez



II. ERANSKINA

**BARRUALDE-GALDAKAOKO ESiko OFTALMOLOGIAKO ATAL SANITARIOKO
BURUA –PERTSONEKIKO ZERBITZUAREN JARDUERAREN KUDEAKETA ETA
KOORDINAZIO ARLOKOA– IZENEKO LANPOSTUA**

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua

Titularra: David Cantero Gonzalez jauna

Ordezkoa: Amaia Etxebarria Altuna andrea

Lehenengo batzordekidea

Titularra: Lorenzo Rodriguez Gonzalez jauna

Ordezkoa: Ana María Iruarrizaga andrea

Bigarren batzordekidea

Titularra: José Antonio López Garrido jauna

Ordezkoa: Arantza Larrauri Arana andrea

Hirugarren batzordekidea

Titularra: Nerea Martinez Alday andrea

Ordezkoa: Ignacio Francisco Santa Cruz Roteta jauna

Laugarren batzordekidea

Titularra: Miren Gotzone Barbarias Salinas andrea

Ordezkoa: Gonzaga Garay Aramburu jauna

Idazkaria:

Titularra: Miren Amaya de Allende Achalandabaso andrea

Ordezkoa: Maite Yeregui Huarte andrea